

2014KO URRIAK 16 - 18
HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK: LOGIKA KOMUNITARIOA



CIUDAD Y OTRAS POLÍTICAS: LA LÓGICA COMUNITARIA
16 - 18 DE OCTUBRE DE 2014

HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK: LOGIKA KOMUNITARIOA

Arkitektura Astearen baitan antolatutako jarduerei amaiera emateko, aste honetan, ostegunetik larunbatera, Hiria eta Bestelako Politikak izeneko saioak izango ditugu Sukaldean. laz abiatutako bideari jarraipena emango diote saio hauek, eta hiriaren eraikuntza logika komunitarioaren ikuspuntutik aztertuko dute, hitzaldi eta lantegien bitartez.

Aurten Hiria eta Bestelako Politikak: Logika Komunitarioa jardunaldien koordinatzaile Donostiako Arkitektura Goi Eskola teknikoko irakasle eta arkitekto diren Ula Iruretagoiena eta Ibon Salaberria izan dira eta saioen gidari izango diren gonbidatuak berriz, Carmelo Rodríguez Cedillo (PKMN), Manu Pascual (Zuloark) eta Itziar González Virós.

Gainera, hilaren 16ko lehen saioan, 2013ko Hiria eta bestelako politikak jardunaldien ondorioak jasotzen dituen argitalpena ere aurkeztuko da, Ibon Salaberria egilearen eskutik.

LOGIKA KOMUNITARIOAK: 60-70. HAMARKADETAKO ESPERIENTZIEN ERREBISIO KRITIKOA

Egungo egoerak 60 eta 70. hamarkadetan bizi izan zenarekin badu zerikusia: politika administratiboen krisia, naturarekin harremana eta politika alternatiboen bilaketa... Garai hartan, modelo eta mugimendu ezberdinak piztu ziren aldarrikapen komunitarioetatik. Posible ote litzateke esperientzia horietatik zerbait gaur egunera ekartzea?

HIRIAREN ERAIKUNTZAN KUDEAKETA EREDUAK

Hiria da, gaur gaurkoz, elkarbizitzaren espazio nagusia eta ekintza estrategikoaren gunea, duela 40 urte nekazal eremua izan zen bezala. Landagunearen eta hiriaren arteko banaketa geroz eta estuagoa da, eta hirian gertatzen den orok eragina du nekazal komunitateetan. Hala eta guztiz ere, instituzionalizatutako hiria ez da gai gatazka sozialen konplexutasuna kudeatzeko eta publiko-pribatuaren artean tradizionalki eman den bereizketa sinpleegia da hiriak eta politika garaikideak eskatzen duten harremanen konplexutasun mailari aurre egiteko. Horregatik, hiriaren eraikuntzari ekiterakoan, negozioazio eremu berriak eta komuna denaren beste kudeaketa eredu batzuk behar ditugu.

Hau izango da aurtengo Hiria eta Bestelako Politikak saioen abiapuntua; eztabaida eta gogoeta sustatu asmoz hemendik abiatutako hainbat ikuspuntu jorratuko dira.

JARDUERA PROGRAMA

Urriak 16, osteguna

19:00
Aurkezpena :
HIRIA BESTE POLITIKA BATZUEN ARTEAN argitalpena aurkeztuko du Ibon Salaberriak .

Hitzaldia:
ARQUEOLOGÍA DEL FUTURO
Carmelo Rodríguez Cedillo (PKMN)

Arkitekturaren historian zehar arkitekturaren beraren, edo hirien etorkizunari aurre egiteko euren artean desberdinak diren manifestazio ugari eman izan dira. Manifestazio, alternatiba edo proiektu hauek askotan gutxietsiak izan dira izaera orokorra duten Teoria Historikoen aldetik, gehien bat, lehenengo horien jarraitutasun ezagatik. Beraz,

ezin dira ikuspegi historiko batetik aztertu, “erabateko” Arkitektura Historiatik at geratzen direlako, horregatik diziplina berri baten barruan sartzeko beharra sortzen da: etorkizunaren arkeologia.

20:00
Hitzaldia:
RIDERS OF THE LOST ARKITECTURE.
Manu Pascual (Zuloark)

Raiders of the Lost Arkitecturerek arkitektoen egitekoaren berrikuste bat planteatzen du, hiriak egun jasaten dituen eraldaketa sozialekin erlazionatuz hau pentsatzeko, ikasteko eta diseinatzeko ikuspegi berrietatik abiatu ahal izateko. Ahots nabarmenak ugaritzen diren lekuak, non edozein pertsona aditu bihurtu daitekeen eta adituena laguntzaile soil bilakatu daitekeen.

Urriak 17, ostirala

16:00-18:30
Lantegia:
ALKATE TXIT AGURGARRIA.
Carmelo Rodríguez (PKMN) eta Manu Pascual (Zuloark).

Hiriaren eraikuntza tresna, metodologia eta profesional ezberdinekin garatzen da baina administrazioek diseinu ofizialetik betiko dinamikak aldatzeko denbora asko behar izaten dute. Lantegi honen bidez hirian aditu direnen kontseilu bat sortu nahi dugu, denon artean ohiko diren prozesuen berrikuntza bat proposatzen dituen gutun bat alkateei idazteko.

19:00
Hitzaldia:
RE-VOLTA.
Itziar González Virós

Hasiera batean eliteak, formazio eta kultura zutelako, despotimo ilustratua egiteko egokienak ziren. Une honetan juxtu kontrakoa gertatzen da. Hiritarren artean ezagutza gehiago dago alderdi politiko eta erakundeetan baino. Buruzagi ezjakinak izan

ditzakegu, gertatzen zaigun bezala, zeharo ilustratua baina urruti dituen hiritarren aurrean. Estatuako historiaren hobekien ikasita dagoen belaunaldia da, erbesteratu nahi dutena, gauzak aldatu ditzakeen munizioa delako. Parlamento Ciudadano proiektuak ezagutza hori atxikitu nahi du, hiritarren artean hedatuta dagoen hori, eta buru bat bezala funtzionatzen hastea.

Urriak 18, larunbata

11:30-13:30
Lantegia

PARLAMENTO CIUDADANO: AMANKOMUNEKO EREMUEN ERAIKUNTZA.
Itziar González Virós.

Parlamento Ciudadanok legeak egiteko ahalmena hiritarren ezagutzan dagoela antzematen du. Ahalmen exekutiboa gure esku dugu desobediencia zibila, kanpaina, akzio eta mugimendu sozial, ikaskuntza toki edota kultura politikoaren bidez. Gure indarra lobbiekiko denon onurarako lan egiten dugulako da. Mundua kolaboratiboa izango da edo ez da izango.

CIUDAD Y OTRAS POLÍTICAS: LA LÓGICA COMUNITARIA

Las actividades enmarcadas dentro de la Semana de la Arquitectura llegan a su fin con una nueva edición de las jornadas Ciudad y otras políticas. Siguiendo en la línea abierta el pasado año, proponemos tres días de charlas y talleres con el fin de ofrecer una visión sobre la construcción de la ciudad desde la lógica comunitaria.

En esta edición, Ula Iruretagoiena e Ibon Salaberria, ambos arquitectos y profesores de la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de San Sebastián, se han encargardo de la coordinación del programa, y los invitados que dirigirán las diferentes sesiones serán Carmelo Rodríguez Cedillo (PKMN), Manu Pascual (Zuloark) e Itziar González Virós.

Además, durante la primera jornada se presentará la publicación editada por Tabakalera que recoge las conclusiones de las jornadas Ciudad y otras políticas en su edición de 2013, de la mano de su autor, Ibon Salaberria.

LÓGICAS COMUNITARIAS: REVISIÓN CRÍTICA DE LAS EXPERIENCIAS DE LAS DÉCADAS DE 60-70

La situación actual tiene similitudes con la realidad de las décadas de los 60 y 70 (crisis de las políticas administrativas, búsqueda de políticas alternativas y relación con la naturaleza), periodo en el cual se plantearon diferentes modelos y movimientos desde la reivindicación comunitaria. ¿Es posible rescatar alguna de estas experiencias y situarlas en la coyuntura actual?

MODELOS DE GESTIÓN DE LA CONSTRUCCIÓN DE LA CIUDAD

La ciudad es hoy el espacio de convivencia por antonomasia y se ha convertido en el lugar de acción estratégico, del mismo modo que hace 40 años fue el campo. La división campo-ciudad es cada vez más sucinta, y todo lo que sucede en la ciudad tiene su influencia en el campo. Sin embargo, la ciudad institucionalizada no es capaz de gestionar la complejidad de conflictos sociales y la tradicional separación público-privado queda hoy como simplificación incapaz de absorber el nivel de complejidad de relaciones que demanda la ciudad y la política contemporánea. Por ello necesitamos nuevos ámbitos de negociación y modelos de gestión de lo comunitario para la construcción de la ciudad.

PROGRAMA DE ACTIVIDADES

Jueves, 16 de octubre

19:00
Presentación:
LA CIUDAD ENTRE OTRAS POLÍTICAS.
Presentación de la publicación a cargo de Ibon Salaberria

Conferencia:
ARQUEOLOGÍA DEL FUTURO
Carmelo Rodríguez Cedillo (PKMN)

A través de la Historia de la Arquitectura aparecen muchas y variadas manifestaciones de cambio necesarias para afrontar el futuro de la arquitectura, o lo que es lo mismo, de las ciudades. Estas manifestaciones, alternativas, proyectos son a menudo denostadas por la crítica o dejadas de lado por las Teorías Históricas de carácter generalista. Debido a que a menudo estas manifestaciones no presentan índices de continuidad. No pueden analizarse desde un punto de vista histórico, quedan aislados de lo que podría considerarse como Historia de la Arquitectura Total, por lo que necesitan ser

objeto de una disciplina emergente: la Arqueología del Futuro.

20:00
Conferencia:
RAIDERS OF THE LOST ARKITECTURE.
Manu Pascual (Zuloark)

Raiders of the Lost Arkitecture plantea una revisión del rol profesional de los arquitectos, relacionando las transformaciones sociales que está viviendo la ciudad actual con los nuevos puntos de vista desde los que podemos pensarla, estudiarla y diseñarla. Unos lugares donde se incrementan las voces relevantes, donde cualquier persona puede convertirse en experta y donde el más experto puede acabar como un mero acompañante.

Viernes, 17 de octubre

16:00-18:30
Taller:
ALKATE TXIT AGURGARRIA.
Carmelo Rodríguez (PKMN) y Manu Pascual (Zuloark).

La construcción de la ciudad hoy se realiza con herramientas, metodologías y profesionales diferentes, pero en el diseño oficial desde la administración se tarda mucho tiempo en que evolucionen las dinámicas de toda la vida. Mediante este taller queremos convocar un consejo de expertos en ciudad, para escribir juntos una carta a los alcaldes, que proponga la renovación de los procesos habituales.

19:00
Conferencia:
RE-VOLTA.
Itziar González Virós

En el inicio, las élites, porque tenían formación y cultura, eran las que más claramente quedaban justificadas para hacer despotismo ilustrado. En este momento es exactamente al contrario. Hay más conocimiento en la ciudadanía que en nuestros partidos políticos e instituciones.

Podemos tener a dirigentes completamente incultos, como nos pasa, al frente de una ciudadanía que está absolutamente ilustrada. Es la generación mejor formada de la historia de España que ahora pretenden que se exilie, porque es la munición que puede cambiar las cosas. El proyecto Parlamento Ciudadano pretende retener todo ese conocimiento que está disperso en la ciudadanía y hacerlo funcionar como una mente.

Sábado, 18 de octubre

11:30-13:30
Taller:
PARLAMENTO CIUDADANO: COSTRUCCION DE TERRITORIOS COMUNES.
Itziar González Virós.

El Parlamento Ciudadano intuye que la capacidad de legislar proviene del propio conocimiento de la ciudadanía desde muchos sectores. Tenemos capacidad ejecutiva mediante la desobediencia civil, las campañas, las acciones y movimientos sociales y los espacios de aprendizaje y cultura política. Nuestra fuerza con respecto a otros lobbies reside en el hecho de que trabajamos por el bien común. El mundo será colaborativo o no será.